



Esp.kodea: 2021RBAR0013

Gaia: 2020KO AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOA

Hasiera eguna: 2021/03/12

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO
IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Arrasateko Udalaren 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzeko proposamena (2021RBAR0013)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Kontu-hartzaileak 2020ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hau:

2020KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2020ko ekitaldiko likidazioa	32.737.292,58 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2020	33.585.778,97 €
C	2020ko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B)	-848.486,39 €
D	Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	0,00 €
E	Deuseztatutako hondarren diru-sarreraren eskubideak	-38.630,53 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-38.630,53 €
G	2020ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	-887.116,92 €
H	Doitzea:	
	H.1 – 2019ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak)	4.095.146,17 €

Kodea	H21/00359	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mar./26	CUDO	000.0055.AAAALB9N.T.UtRX
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALB9NT.UtRX		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			



Esp.kodea: 2021RBAR0013

Gaia: 2020KO AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOA

Hasiera eguna: 2021/03/12

H.2 - 2020ko ekitaldiko finantza aldeen doikuntza (eranskina 2) -127.538,27 €

H.3 – Finantzazio lotuaz izandako obligazioen doikuntza (ez dagokio) -positiboak 0 €

DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2 + H.3) 3.967.607,90 €

I AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H) 3.080.490,98 €

2020KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINA

1 KUTXAN DAUDENAK, 2020-12-31n 8.984.602,97 €

2.1 Ekitaldi arruntean kobratzeke daudenak 2.958.298,16 €

2.2 Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak 2.977.047,60 €

2.3 Aurrekontukoak ez diren zorrak 3.897.745,52 €

KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA
2 (2.1+2.2+2.3) 9.833.091,28 €

3.1 Ekitaldi arruntetako hartzekodunak 2.331.477,13 €

3.2 Itxitako ekitaldietako hartzekodunak 16.043,15 €

3.3 Diru-sarreraren aurrekontuaren hartzekodunak --- €

3.4 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak 1.697.560,10 €

ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 +
3 3.2 + 3.3 + 3.4) 4.045.080,38 €

4 DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2 - 3) 14.772.613,87 €

5 DOITZEA:

- AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina – 3) -127.538,27 €

- ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina – 4) -3.081.419,25 €

Kodea	H21/00359	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mar./26	CUDO	000.0055.AAAALB9N.T.UtRX
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALB9NT.UtRX		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			







Esp.kodea: 2021RBAR0013

Gaia: 2020KO AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOA

Hasiera eguna: 2021/03/12

DOITZEA GUZTIRA (5)

-3.208.957,52 €

DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, GASTU
6 OROKORRETARAKO DOITUA (4-5)

11.563.656,35 €

Bestalde, udal sailek hainbat eskaera egin dituzte, 2020ko aurrekontuko inbertsioetako gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuez gain), onartutako obligazio aldira iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezten. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, eta 7.025.476,34€ko zenbatekoa da (eranskineko 5. agiria, 2020tik geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak ere sartuta daude dokumentu horretan).

Eskaera horiei dagokienez, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutako txertaketa onartzeko, finantzazio nahikoa dutelako eta kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo diru-sarrera espezifikoz finantzatzen direlako eta, halaber, aplikatzekoa den lege araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzari eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nahiz 2018ko aurrekontua betetzeko arauak eskatutako baldintzak betetzen baitituzte.

2020ko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2021eko aurrekontura kredituen zerrenda txertatzeari buruz, Barne Antolaketa Batzordeak, aldeko txostena eman du eta honako akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

1) 2020ko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-hartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.

2) Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3) Onartzea 2021eko aurrekontuan sartzea 2020ko aurrekontutik datozen kredituko zenbait gastu- kreditu, 7.025.476,34 euroko kopuruagatik, honekin batera doan zerrendaren arabera. Horietatik, zati bat, zehazki, 365.906,53 euro, edo lotutako diru-sarreraren bidez sortutako diruzaintza gerakinaz finantzatzen da (127.538,27 euro) edo sarrera konpromisoekin finantzatzen da (238.368,26 euro). Gainerakoa, 6.659.569,81euro, 2020ko aurrekontuaren likidaziotik datorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaz finantzatuko litzateke.

Kodea	H21/00359	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mar./26	CUDO	000.0055.AAAALB9N.T.UtRX
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALB9NT.UtRX		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			







Esp.kodea: 2021RBAR0013

Gaia: 2020KO AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOA

Hasiera eguna: 2021/03/12

4) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo den hurrengo bilkuran, eta, aldi beran, adieraztea 2020ko aurrekontuaren likidazioa eta 2021erako kredituen txertaketa (akordio honetako 3. zenbakian aurreikusia) onartu eta gero, oraindik egongo litzatekeela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin kopuru bat erabili gabe, 4.538.180,01 eurokoa.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko martxoaren 26an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/00359	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mar./26	CUDO	000.0055.AAAALB9N.T.UtRX
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALB9NT.UtRX		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			



